

Giro aldaketak

TXILLARDEGI



EGUN

hauetan, Kataluña, Telesforoz oroitzen naiz, 36ko gerra aurrean, berak konduatu ohi zuenez, Euskal Herriko hiri batean taberna bateko atea zabaldu; eta, ez bat eta ez bi...

«Aldatu egin da giroa», ondorioztatzen zuen Telesforok. «España da gaur probokazioa». Eta, nondik nora, hizkuntzaren alorrean, plegu bereko giro-aldaketa dago Kataluña.

Kataluña gaur lehenengo hitza gaztelaniaz botatzeko, erdararen militante zaildua izan behar da. Edozein lekutan, denda, taberna, bilera edo ostatu, lehenengo hitza katalaneraz dator; eta espainierara aldatzea, gutzit markatua, 'odd' eta anormal gertatzen da. Probokazioa ere bai, iturraz bederen.

Katalaneraren gailentze hau gutzit nabarmena eta ukatu-ezina izanik (espainiolisten 'pegatinak' berak... katalanez mintzo dira hormetan!), gauza bera kondatzen dugu, nahi-ta-ez, Kataluña bisitatzen dugun euskaltzale gutziok.

Hemengo erdermanoen erdaltzaleak osoa, faktikoa eta lotsagabea, hango katalan-zaleatuen oso eta faktikoa bezain gotorra delako.

Badakit: hemen ere apurka ari dira gauzak aldatzen. Dударik gabe: bai.

Badakit: errazago da gaztelaniatik katalanera aldatzea, euskarara baino. Egia hau ere, noski.

Katalaneratik gaztelaniera pasatzea, bide berekiko, oso erraza da. Tarte bera da A-tik B-ra, eta B-tik A-ra. Faktore sozio-linguistikoek egin dute katalanera lerratzea azkenezan errazago bihurtzea.

Katalanek ez dute katalaneri buruz hitz egiten. Katalanek *katalanera*: mintzo dira. Eta kito.

Sueziarrak suezieraz mintzo diren bezala, Espanturik gabe, Baina ulertuko ez dituzte-nez... trufatzen direlarik.

Betirako zorrak

JOXEAN MUÑOZ



PREMIA

eta larritasuna baino lehenago Paradisua izan zen. Lorategi edo harekiko armonian bizi omen zen Adan, zorion betean. Edota ezion Paradisuko bizitzaren

eremuak ezinonik sortzen, hain baitzen zoragarria, edota etzen kadentzia hartaz beste ezer egon zitekeen inajintzeko gai. Adan triste bat, hari eta kolega bat aurkitu zuen arte. Eba deitu izan diote, emakumezkoa izateari garrantzi izugarria emanaz, baina azken finean, beste gutziak gain. —sugariko lilura barme— kide bat aurkitzea zen, kolega bat. Erakutsi zion sagararekiko grina, orduko beste espezie zoragari asko bezala, egun desageratu den sagar klase miragarri bat baitzen: whisky-sagarra. Probatu zuten; atsegin izan zuten. Orduantxe izoratu zen Paradisuaren oreka perfektua.

Gauzak izan behar duten moduan izan zitezien arduratzeari utzi zioten. Axolagabatasunak liluratu zituen, zoriontasun klase berri batez. Jaunkoena zen ordea, zoriontasun debekatu hori: mundua sagar batean bildu, mahai baten esparruan, eta seinaltzearen poderioz. «hau Eguna, hau Gaua, hau Elefantea eta hau Goierriko Txantxangorria» esate hutsarekin, mundua berrasmatzeko ahalmena.


Horrek, gauza jakina da, zigorra merezi du. Lorategi perfektua omen den honi bizkarrak ematea ordaindu egiten da, garesti. Fruituari koska egin orduko jaso zuten Aurrezki Kutxaren abisua, sagarra lehen bait lehen ordaintzeko. Haziendakoek, sagarra ez ordaintzeko ekarriko zituen uholde, lurrikara, gerra eta akabera nuklear gutzien ardura egotzi zien. Horrela egin zuen fin gaizto Paradisua. Sagarra jan genuenetik bizi gara zorretan.

ARGIA

Jeltzaleak eta sozialistak muturka dabilta euskararen zelaian

EAJri AEK eta Eusko Jaur-laritzaren arteko akordioarekin baretu zaizkion urak beste alde batetik harrotu zaizkio, uholdea sortzeraino. Uholdea noski, HABEren auziarekin nahastuta datozen haize hotzek eragin dute.

Jeltzaleak bakar-bakarrik geratu dira beraz, auzi honetan. PSE-EEK, «euskara munduarekin akordioak lortzeko» egin-



Bi urte baino gehiago etortzeko !!! Amerika urrutit dago! PLANTU / LE MONDE

dako adierazpenetan, EAJreki-ko distantziak handiak direla agertu du eta bere bidea osatzeko prest dagoela. Alde honetatik begiraturatua, gobernuakideen arte-

ko etena nabarmena da. EUSKALDUNON EGUNKARIARI dagokionez ere, gauza bera. PSE-EE, euskararen munduan alternatibarik baduela

ZUZENDARIARI

Azkoitiko Gaztetxea zabaldu!

Joan den otsailaren 5ean izan zen Azkoitiko Gazte Asanbladak egindako lehen okupazioaren 10. urteurrena. Lehen bileran, berri-ritz, 1983ko otsailaren 29an egin zen. 11 urte luzeko borroka da, beraz, Azkoitiko Gaztearen Asanbladak daramana. Borroka hori ez dago amaitua, ezta hurririk emanez ere.

Udaletxeak iaz, urriaren 13an, aldez aurreko abisurik batera gabe, hirugarren gaztetxea itxi zigunean arrazoiak betikoak izan ziren: zikinkeria, zarata, drogak... Udalkar gaztetxea itxteko emandako aitakia faltu horiei erantzuteko, honako hau esan beharra dago.

a) zikinkerian buruz: gaztetxea itxi zutenean liburutegi berria egiten ari ginen, eta obratan ari garenean normala da zikinkeria egotea. Gainera, nor erabakitzen du zer dagoen zikina eta zer ez? Esate baterako, herri osoa dago zikina —mendiak, ibaiak, erreka...—, baina hori ez da gure erria.

b) zaratari buruz: gaztetxea gainerako tabernak baino lehenago ixten zen normalean, egun berezi batzuetan izan ezik. Inso-norizatuta egongo balitz, ez zen zaratarekin arazorik izango. Udala bera da, beraz, erruduna.

c) drogarri buruz: drogak kalean daude, alkohola, telebista, hatxisa, anfetamina, kokaina, heroina, estasisa... Gure artean beti izan dira eztabaida gogorrik gai honen inguruan, eta ekintzak ere egin izan ditugu: zen-bait trafikantaren aurkako ekimenak, drogan inguruko informazioa eta kontrainformazioa...

Zipaoiei dagokionez, oso gaizki moldatu izan gara beti. Hasieratik izan ditugu istilua, mehatxak, miaketak, salaketak, atxilotetak... Gaztetxea itxi dugutenez geroztik antolatutako ekimenetan ere beti izan dugu gainean zipaoien errepresioa.

Gaztetxea asanbleario eta autogestionario baten aldeko borrokari eutsiz, hainbat ekitaldi antolatuta ditugu asie honetan zehar gure hirugarren gaztetxearen zaspargaren mendeurrena ospatzeko (1987ko apirilaren 15ean inauguratu baitzen). Har ezazu parte, eta kanpoko bazara, ez dudarik egin: etorri Azkoitira!

AZKOITIKO GAZTE ASANBLADA

Zezenketen aurka

Koordinakunde honen partaideok bi arazo-zeinengatik ezin ditugu ontzati hartu zezenketak:

- ikuskizun basatiak direlako, Erroma zaharreko ikuskizun odoltsu antzekoak, XXI. mendearen atarian, zibilizazioaren anipodetan daudelako, are gehiago gauden —edo egon nahi dugun— kultur haundiko Europa honetan.
 - Espainiako 'jai nazionala' denez, gure herria espainioeztatzeako tresna bihurtu delako, hizkuntza, folklore edota arrotz-ohituraren antzera. Abertzale edo —gutxienez— euskaltzale ikuspuntu batetik gutzit onartezina kontutan hartuz zeinei komeni zaije jai basati honek gure herrian erroak egin dituzan (galdetu biestela hain ondo ezagutzen duen gaia Ordoñez Donostiako zinegotzi espainiarrari).
- Esandakoarengatik, hemendik aurrera

prest agertuko gara 'azpeitiar-zezenzale' bimoto honen aurka lan egiteko, ikuskizun lotsagarri hau gure herritik eta Euskal Herri osotik erbesterratu arte.

AZPEITIKO ZEZENKETEN AURKAKO KOORDINAKUNDEA

ETB1 eta zinea

Apirilaren 12ko EGUNKARIAN, Lasarteko Arantxa Arrieta irakurlea kezu zen ETB1k eman ohi den filme urriaz. Bere uestez, nik ez omen dila Inaki Zubizarreta orain hurrengo egindako salaketari behar bezala erantzun. Izan ere, kontua ez omen da 'El silencio de los corderos' delakoaren kasua bakarrik, funtseko zerbaite gehiago baijak, alegia: ETB2k ETB1k baino askoz ere filme gehiago eskaintzen omen du.

Erantzun gisa:

1. Orain eta hemen, Arantxa Arrietek arrazoi gutzia du baina ez informazio osoa.
2. Polemika hau zaharra da. Inaki Zubizarreta eta biok nor bere iritzia azaltzeko beta izan genuen duela ia urtebete.
3. Arantxa Arrietek zen beste edozein irakurlek informaziorik nahi izango balute, ikus EGUNKARIA, 1993ko maiatzaren 14 eta 22ko aleak, eta ekainaren 5 eta 10ekoak.
4. Dena den, berriro ere polemika berberari ekin behar bazaio, ETBk behar beste informazio eskainiko du.

LUIS A. ARANBERRI

(ETBren zuzendaria)

GAIA JARRITA

Korruptzioa



Agintariak berea dute haundikeriaren grina oraintxe denen eskutan dago lapurretaren zikina Conde hasi zen, ondoren Roldan ta orain Rubiok berdina ta kontzientzi arazo soila intsumisioen dotrina haiek barruan, hauek kalean horrek ematen dit mina nahiz ta izan ezjakina gure justizi usteldua da adar jotezko makina ta gaur egungo kartzela ez da gaizkileentzat egina.

JOKIN SOROZABAL

Egunkaria

Batzord. P. 8. Ica 72564 E / Lege Gondailua: SS 800.900

OJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria: INAKI URBA

Gerentse: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTINLO OTAMENDI

Zuzendariordeak: LUZIZEN ETXEZAHARRETA

Publizitateak: MARI JOSE SARASA

Espainiako Publizitateak: PUBLICITAS
Capitan Haya 1, 28020 Madrid. T: 91 555 11 01 / Fax: 91 556 20 29

HELBIDEAK

Erredakzio eta Teletira: ANTZA S.A. Industriadun 01-02 Babiluak / 20100 Lasarte-Oria. T: 91 15 45 11 / Fax: 91 54 93

Erredakzio sozialak, Publizitate eta Administrazioak: Anso Jakituna, Ica 1, 28010 Donostia. T: 40 91 32 71 / Fax: 40 59 87

Araba: San Antonio, 26 1. eraz. / 01005 Gasteiz. T: 23 38 77 / Fax: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monseguido, 45-13 esk. / (Iruntze dorrea) / 31011 Irutxua. T: 17 80 78 79 / Fax: 17 80 77

Bizkaia: Zabaltzu Enparantza, 2-1. ezkerrean / 48003 Bilbo. T: 410 40 46 / Fax: 410 37 15

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14, 1/503 Posta Kutxatua, 64100 Baiona. T: 59 59 35 75 / Fax: 59 25 75 11